


Mahaiko zerra zirkularra

Sartu fitxa honetan eta deskargatu beste hizkuntza koofizial nahiz atzerriko batzuetan



Makina erabili aurretik, ziurtatu:

Hauek guztiak ditu: diskoa estaltzeko karkasa; ebaketako aiztoa; piezaren bultzatzailea; transmisioak babesteko karkasa; etengailu elektriko estankoa, berrarmatzeko gailuarekin eta lur-hargunearekin.

Hezetasunaren aurkako mahukak eta larako estankoak erabiltzen dira elektrikoki elikatzeko.

Giltza egokiak erabili dira diskoak estutzeko eta lasaitzeko.

Zure arropa ez dago zirpilduta edo solte, ilea ez daramazu solte, eta ez duzu zintzilikario, eskumuturreko edo eraztunik

Aukeratutako diskoa egoera onean dago, eta egokia da ebaki beharreko materialari.

Itzte edo metalezko zati guztiak atera dira.

Mahaia lurrean irmo kokatuta dago, putzurik gabeko tokian.

Makina garbi dago, eta ez dauka karkasaren blokeoa eragin dezakeen txirbilik.

Erabilerari dagokionez:

Erabili soilik horretarako gaitasuna eta baimena badituzu.

Ziurtatu zurak ez duela begirik.

Egiaztatu karkasa jaitsita dagoela eta diskoa babesten duela ebaketan.

Egiaztatu ez dagoela inor makinaren ekintza-eremuan.

Piezari heldu aurretik, itxaron diskoaren inertzia-mugimendua gelditu arte.

Saihestu diskoaren gehiegizko esfortzuak.

Garbitu sarri-sarri lan-eremua erorikoak edo estropezuak saihesteko.

Erabili pieza txikien bultzatzailea eskuak diskoaren irismenetik kanpo edukitzeko.

Erabili beharrezko **NBE**ak, hauek gutxienez:



begi-babesak



belarri-babesak



ebakien aurkako eskularruak



iragazkidun maskarak



segurtasun-oinetakoak

Lana amaitzean:

Deskonektatu korrontetik erabiltzen ari ez zarenean.

Lanak amaitzean, ez ukitu diskoa eskularrurik gabe.

Kokatu makina obratik kanpoko pertsonak sartu ezin diren toki batean.

Egiaztatzeko, doitzeko eta mantentzeko eragiketa guztiak langile kualifikatu eta baimenduek egin behar dituzte.

Makinen egiaztapenari buruzko informazio gehiago izateko, **jo hona:**

